

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

132/2020 Foru Agindua, ekainaren 22koa, zeinak onesten baitu luzatzea 2019-2020 ekitaldian jasagarritasun energetikoa sustatzeko ekintzak gauzatzeko epea eta dirulaguntzak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion jasagarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntza lerroaren 2019-2020 ekitaldirako deialdiari.

Dekretu horrek, hamargarren apartatuan, honako hau xedatzen zuen: Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 580/2019 Erabakiaren bidez, dirulaguntza horien esleipena onetsi zen.

Bi ebazpenetan ezarri zen 2020. urteko kopuruari dagozkion gastuak ordaintzeko eskatzen ziren agiriak 2020ko uztailaren 17rako aurkeztu behar zirela, eta 2020ko uztailaren 10erako gauzatu behar zirela gastuak.

COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloan presazko neurri osagarriak ezarri zituen martxoaren 31ko 11/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluko 1. apartatuaren arabera, "Dirulaguntzak esleitzeko prozeduretan, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokoraren 22.1 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen eta laguntza publikoen deialdien eta esleipenen aginduak eta ebazpenak emanak bazeuden 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu zenean, aldatu egin ahal izango dira, eta, beraz, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea luzatu ahal izango da, bai eta, hala badagokio, jarduera gauzatu dela justifikatu eta egiaztatzeko epea ere, nahiz eta kasuan kasuko oinarri arautzaileetan horrelakorik jasota ez egon.

Horretarako, organo eskudunak alarma egoera indarrean dagoen bitartean diruz lagundutako jarduera egiterik ez dagoela baino ez du justifikatu beharko, bai eta alarma egoera amaitutakoan geratzen den aldia ez dela nahikoa diruz lagundutako jarduera gauzatzeko edo hura gauzatu dela justifikatu eta egiaztatzeko ere."

Kontuan hartzen da, hasteko, administrazio epeak etetearen eta osasun alarmako egoera dela eta ezarritako gainerako murrizketen ondorioz, eten egin behar izan direla diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko zerbitzuak eta obrak kontratatze prozedurak, martxoaren 14a (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoeraren hasiera ezarri zuen) eta 2020ko ekainaren 1a bitartean (maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak administrazio epeak abian jarri zituen berriro).

Administrazio epeen derrigorrezko eteteaz gain, egoera ekonomikoa dela eta, zenbait enpresa hornitzailek bertan behera utzi behar izan dituzte eskaerak, hornigaiak eta materialak eskuratzeko zailtasunak izan dituztelako eta, ondorioz, zenbait baldintza malgututakoan, ezin izan dituztelako bezero guztiak aldi berean hornitu.

Horregatik guztiagatik, erakunde eskatzaileek ageriko zailtasunak izan dituzte diruz lagundutako jarduerak ezarritako epean gauzatzeko aurrez egin beharreko lanak egiteko eta, ondorioz, 2020ko uztailaren 10era eta 17ra arteko epeak ez dira nahikoak.

Kontuan hartuta zein zailtasun izan dituzten jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntzen erakunde eskatzaileek osasun alarmako egoeraren ondoriozko murrizketak direla eta, bidezkoa da 2020ko urterokoari dagozkion gastuak ordaintzeko eskatzen diren agiriak aurkezteko epea luzatzea, alarma egoera indarrean egon den beste egunez luzatzea ere, alegia, 2020ko urriaren 5a arte. Horrenbestez, 2020ko urterokoari dagozkion gastuak 2020ko irailaren 28a baino lehen gauzatu beharko dira.

Hori dela eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2020ko irailaren 28ra arte luzatzea 2019-2020 ekitaldian jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntzen 2020ko urterokoaren gauzatze epea.

Bigarrena. Onestea 2020ko irailaren 28ra arte luzatzea 2019-2020 ekitaldian jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako dirulaguntzen 2020ko urterokoaren justifikazio agiriak aurkezteko epea.

Hirugarrena. Egintza honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa jar daiteke, nahi izanez gero, egintza hau eman duen organoan beraren aurrean, edo zuzenean aurkara daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarrita Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso edo, kasuan kasu, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Hala ere, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jarri ahal izango da, honako hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 22a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA